

BATX2

ZENBAIT IKASGAIEN DESKRIBAPENA

IKASGAIAREN IZENA: FRANTSESA	MAILA: BATX2
IKASGAIAREN DESKRIBAPEN LABURRA: B2 mailako azterketarako prestakuntza zehatza. Lexiko eta gramatika. Konpententzia guztiak landuko ditugu bereziki ulermena eta ekoizpena.	
EDUKI ESANGURATSUENAK: <ul style="list-style-type: none">• Comprendre des conférences et des discours assez longs et même suivre une argumentation complexe.• Comprendre la plupart des émissions de télévision sur l'actualité et les informations.• Comprendre des articles dans lesquels les auteurs adoptent un certain point de vue.• Communiquer avec un degré de spontanéité et d'aisance qui rende possible une interaction normale avec un locuteur natif.• Écrire des textes clairs et détaillés, écrire un essai ou un rapport en exposant des raisons pour ou contre une opinion donnée. Écrire aussi bien des lettres formelles.	

IKASGAIAREN IZENA: ENPRESAREN EKONOMIA	MAILA: BATX2
IKASGAIAREN DESKRIBAPEN LABURRA: Ikasgai honen helburua ikasleek enpresek gizartean duten eragina eta garrantziaz hausnarketa egitea da. Enpresa mota desberdinak bereiztuko ditugu. Enpresaren elementuak eta sail edo arloak zeintzuk diren aztertuko ditugu eta enpresak ingurunearekin dituen harremanak.	
EDUKI ESANGURATSUENAK: <ul style="list-style-type: none">• Enpresa eta enpresaburua.• Enpresa motak.• Enpresaren lehia estrategiak eta balioa sortzea. Nazioartekotzea. Globalizazioa.• Enpresaren antolakuntza.• Enpresaren sail edo arlo desberdinak:<ul style="list-style-type: none">• Giza baliabideen arloa: Lan kontratuak, sindikatuak, langileen hautaketa prozesuak...• Ekoizpen arloa: Ekoizpen prozesua, enpresaren kostuak, errentagarritasun ataria...• Hornidura arloa: Inbentarioen kudeaketa.• Merkaturatze arloa: Marketina.• Finantzaketa eta inbertsio arloa: Finantzazio iturriak. Inbertsioak aztertze metodoak.• Enpresaren kontabilitatea.	

IKASGAIAREN IZENA: MARRAZKETA ARTISTIKOA II	MAILA: BATX2
<p>IKASGAIAREN DESKRIBAPEN LABURRA:</p> <p>Marrazkiak, irudien lengoaia gisa, gizakiak komunikatzeko duen behar naturalari erantzuten dio, ideien-transmisioa, deskribapenak eta barne sentimenduen adierazpena erretzen baitizkio. Bestalde, formen lengoaia ikasteko gaitasuna ahalbidetzen du, ondoren, ingurunea eta norbere ideiak bisualki adierazteko.</p>	
<p>EDUKI ESANGURATSUENAK:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Sentikortasun artistikoaren garapena eta sormena sustatzea. • Ikuste-memoria eta oroimena garatzea, norbere kanpotiko, nahiz, barrutiko irudien bitartez adierazpena ahalbidetzeko. • Inguruko formen ulermen gaitasuna hobetzea, analisiaren bitartez eta bere egituraren ikerketa eta barne antolamenduari esker. <p>Materialen gaineko beharrezko ezaguerak, prozedurak eta ezinbesteko teknikak lortzea, ikus-pentsamenduaren adierazpen zuzena bermatzeko.</p>	

IKASGAIAREN IZENA: INFORMATIKA	MAILA: BATX 2
<p>IKASGAIAREN DESKRIBAPEN LABURRA:</p> <p>Europar batasunak DIGGCOMP markoaren bidez ezartzen dituen gaitasun digitalak lantzen dira ikasgai honetan. Helburua, ikasleak komunikazioan, informazioaren bilaketan, segurtasun informatikoan, programazioan eta arazoak konpontzeko IKTen erabilera trebatzea da.</p>	
<p>EDUKI ESANGURATSUENAK:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Programazioa: Programazioan sakonduko da eta mugikorrenzako aplikazio konplexuagoak sortuko dira App Inventor bidez. • Segurtasun informatikoa: IKTen erabilerak 17-18 urteko neska-multilei dakartzkien arriskuez nola babestu landuko da modu praktiko baten bidez. • Interneteko edukiak sortzen: Interneteko eduki sortzaile bihurtuko dira ikasleak infografia, bideo eta Wikipedia/Txikipediako artikuluak sortuz. 	

IKASGAIAREN IZENA: PSIKOLOGIA	MAILA: BATX2
<p>IKASGAIAREN DESKRIBAPEN LABURRA:</p> <p>Helburua: Psikologiako gaur egungo eredu teorikoak zein diren jakitea, eta ikerketa txikietan erabiltzea, diziplinaren ikuspegi globala izateko. Horren bitartez, norberaren errealitatea aztertzeke estrategiak eskuratzea lortu nahi da, alderdi intelektualari, afektiboari eta jarrerazkoari dagokionez, eta bizitzako egoera konkretuetan aplikatzea, nork bere jardueraren benetako kontrola eskuratzeko.</p> <p>Metodologia: Azalpen teorikoak egiten direnean ikasleak eskemak koadernoan jasoko ditu. Halaber, koadernoan egingo ditu gainontzeko jarduera osagarriak : testuak, ariketak, gaiak sakontzeko eta azalpenak prestatzeko lanak...</p> <p>Astean behin, informatika gelan emango da saioa, gaiak sakondu eta taldeka azalpenak prestatzeko. Azkenik, gaiak osatzeko hainbat testu, artikulu, film eta dokumental ikuskatuko dira.</p>	
<p>EDUKI ESANGURATSUENAK:</p> <ol style="list-style-type: none"> 1. ebaluazioa: eboluzio historikoa, oinarrizko teoriak, eremuak eta metodoak, oinarrizko prozesu kognitiboak, pertzepzioa. 2. ebaluazioa: oinarrizko prozesu kognitiboak, oroimena, goi mailako prozesu kognitiboak, ikaskuntzari buruzko teoriak, adimena. 3. ebaluazioa: gizakiaren eraikuntza, motibazioa eta frustrazioa, nortasuna eta afektibitatea, psikologia soziala eta erakundeena, gizakiaren dimentsio soziala eta erakundeen psikologia. 	

IKASGAIAREN IZENA: FILOSOFIAREN HISTORIA	MAILA: BATX2
<p>IKASGAIAREN DESKRIBAPEN LABURRA:</p> <p>Helburua: Ikasgaiaren helburu nagusia filosofiaren historiako autore eta testu nagusiak ezagutzean datza, Platonengandik hasi eta Habermas-eraino iritsiz. Era berean, filosofiaren historiako teoria eta kontzeptu nagusiak aztertuz, ikasleek jarrera arrazional eta kritikoa bereganatu eta garatzea da ikasgaiaren beste helburu bat.</p> <p>Metodologia: Irakaslearen azalpenak, liburua, iruzkinak eta eskemen bitartez eramango da irakaskuntza prozesua aurrera. Halaber, azterketa baten bitartez erakutsi beharko dituzte ikasleek barneratutako edukiak.</p>	
<p>EDUKI ESANGURATSUENAK:</p> <ol style="list-style-type: none"> 1. Platon eta <i>Errepublikako</i> VII. liburua 2. Hiponako Agustin eta <i>De vita beatako</i> II. atala 3. Kant eta <i>Zer da Ilustrazioa?</i> 4. Marx eta <i>Manifestu Komunista</i> 5. Habermas eta <i>Zientzia eta teknika ideologia gisa</i>. 	

IKASGAIAREN DESKRIBAPEN LABURRA:

Gaur egungo testuinguruan, oso garrantzitsua da ikasleek ideiak proiektu bihurtzeko beharrezkoak diren konpetentziak eta eskumenak sustatzea, negozio bat abian jartzeko eta haren etorkizuneko bideragarritasuna bermatzeko aldagaiak sakon aztertuz.

Negozio-ideia jakin batean pentsatu, eta, ideia hori gauzatu ahal izateko aurrera eraman behar den jarduera ekonomikoa aztertzen da, enpresa-kostuak aztertuz. Horretarako, enpresa nola antolatu behar den, informazioa eta administrazioa nola eraman behar den, eta barneko kudeaketa prozesu guztia aztertzen da. ,

Ikasgai honetan STARTInnova proiektua sartu izan dugu, non CANVAS metodoan oinarrituz, negozio plan bat egiten dugun taldeka.

EDUKI ESANGURATSUENAK:

- Enpresa-berrikuntza. Negozio-ideia: enpresa-proiektua. • Espiritu ekintzailea: ekintzailtza motak. • Genero estereotipo eta rolen eta ekintzailtza mota desberdinak garatzeko ezaugarrien arteko harremanak. • Ekintzailearen ezaugarriak. • Enpresa-arriskua
- Enpresaren barne-antolakuntza, forma juridikoa eta baliabideak • Funtzio ekonomikoa. • Sailkapena. Zer enpresa mota dauden jakitea
- Enpresa martxan jartzeko dokumentazioa eta izapideak • Estatutuak eta eskriturak egitea. • Merkataritza-erregistroan inskribatzea. • Ogasuneko izapideak. • Gizarte Segurantzako izapideak. • Udaletxeko izapideak.
- Hornidura-plana • Erosketa-zikloa: beharizanak aztertzea, eskaintzak hartzea eta konparatzea, hornitzaileak hautatzea, eskaerak bidaltzea, eskaerak hartzea eta egiaztatzea, fakturak hartzea eta egiaztatzea, ordainketak egitea
- Enpresaren merkataritza-kudeaketa eta marketina • Produktua salmentaren xede: produktuaren ezaugarriak, produktua ezagutzearen garrantzia, sailkapena eta bizitza-zikloa. Lehiatzaileen produktuak.
- Giza baliabideen kudeaketa • Pertsonaleko saila: giza baliabideak eta enpresa, giza baliabideak kudeatzeko ereduak, funtzioak, egitura. Lanpostuak
- Enpresaren kontabilitatearen kudeaketa • Kontularitza-prozesurako sarrera: kontularitza, ondarea, kontularitza-liburuak, oinarritzko kontularitza-zikloa eta kontularitzako terminologia.
- Inbertsio- eta finantziazio-beharrizanen kudeaketa. Enpresaren bideragarritasuna • Inbertsio-plana eta finantzazioa: aktiboak eta finantzazio-iturriak. Enpresaren bideragarritasuna
- Negozio-ideiaren garapenaren ahozko azalpena

IKASGAIAREN IZENA: **INDUSTRI TEKNOLOGIA II**

MAILA: **BATX2**

IKASGAIAREN DESKRIBAPEN LABURRA:

Ikasgai honetan teoria (2 ordu) eta praktika (2 ordu) jarduerak orekatzen dira. Proiektuen-metodoa metodologia ardatza izanik, arazo-egoera bati erantzuna emango diote, ikasitako edukiak aplikatuz. Proiektu amaieran, txostena egin eta aurkeztuko dute.

EDUKI ESANGURATSUENAK:

- Proiektuen- metodoa.
- Ideien adierazpena (adierazpen grafikoa, ahozko eta idatzizko adierazpena).
- Materialak. Propietateak.
- Makina termikoak.
- Elektronika digitala.
- Automatizazioa eta robotika (mBlock, Arduino, gcode). (3D impresioa).